

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Zerga-zorrak atzeratzeko baldintzei eutsiko zaie 2015ean haien ordainketa errazte aldera

Nafarroako Gobernuak zerga-neurriei buruzko lege-proiektu bat onartu du, eta haren barnean berandutzako interesa % 4,37ra murriztea ere sartzen da

Miércoles, 29 de octubre de 2014

Nafarroako Zerga Ogasunak, oro har, aurten indarrean dauden zerga-zorra atzeratzeko baldintza berbereri eutsiko die 2015ean ere. Neurri horren helburua da, zergadunei zor horiek ordaintzeko erraztasunak ematea, Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onartutako zerga-neurriei buruzko lege-proiektutik ondorioztatzen denez.

Dokumentua Nafarroako Parlamentura igorriko da orain, han eztabaidatu eta onar dadin, hala badagokio, eta dokumentu horrek beste aldaketa batzuk ere barneratzen ditu, esaterako : zergaren berandutzako interesa % 4,375ra murriztea datorren urtean; tasa berri bat sortzea Foruzaingoak zezenketetako ikuskizunetan emandako zerbitzuak ordaintzeko, bai eta izapideak sinplifikatzea ere zerga-erantzukizuneko desbideratze-kasuetan.

Zorra atzeratzeko eta zatikatzeko eskaeretan, aldaketa bakarra egiten da, eta hark premiamenduzko bidetik egindako zorren ez betetzei eragiten die. Halakoetan, adostutakoa ez bada ordaintzen lehen atzerapenean, zergadunak bigarren atzerapen bat eskatzen badu, Ogasunak, izatekotan, zor guztiaren % 30 alde aurretik ordaintzea eskatuko dio, hura eman aurretik.

Gainera, aipatu denez, dokumentuak berandutzako interesa eguneratzen du, Estatuak aurreikusitakoaren parean jarritz. Horrenbestez, datorren urtean, 2009. urtetik indarrean zegoen % 5eko egungo portzentajea % 4,375era murriztuko da.

Beste aldaketa batek zerga-erantzukizuneko desbideratzeari eragiten dio. Kasu horretan, izapide laburtu bat sartzen da eta, hala, erantzuleak Ogasunak igorritako proposamenari alegaziorik egiten ez badio hamabost eguneko epean, erantzukizuneko desbideratze-egintzaren jakinarazpena egintzat jotzen da.

Tasak

Azkenik, lege-proiektuak tasa berriak sortzea eta beste batzuk eguneratu nahiz aldatzea jasotzen du.

Lehen taldean, berrikuntza da tasa bat ezartzea Foruzaingoak zezenketetako ikuskizunetan emandako zerbitzuak ordaintzeko. 500 euro ordaindu beharko da foruzainek aginpidearen ordezkari jarduten dutenean eta 100 euro zezenak lehorreratzeko eta aztertze lanak egiten

dituztenean.

Europar Batasuneko etiketa ekologikoa ematea kargatuko duen beste tasa bat ere sortzen da. 400 euroko tarifa orokorra finkatuko zen, eta 200 eurora jaitsiko da enpresa txiki eta ertainetarako eta mikroenpresetarako, bai eta garapen-bidean dauden herrialdeetako operadoreentzat ere. Borondatezkoa da de etiketa horren helburua bere bizi-ziklo guztian ingurumen-eragin murrizta duten ondasun nahiz zerbitzuak bereiztea. Hura eskatzea eta erostea araututa dago [253/2014 Foru Aginduan, uztailaren 22koa](#), Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilariarena. Azkenik, apustueto dendei joko-aretoek jadanik ordaintzen zuten ustiapeneko baimen-tasa (437,58 euro) aplikatuko zaie, estreinakoz.

Zerga-neurriei buruzko lege-proiektuak, azkenik, saneamenduko kanonaren eguneratzea jasotzen du, eta etxeko erabileren kasuan, 0,556 €/m³-tik 0,57 €/m³-ra pasatzen da, bai eta beste administrazio-zerbitzu batzuetako tasen eguneratzea ere, besteak beste; garraioa, abeltzaintza, ehiza eta arrantza.